

MILURTEKOAREN AZKENA


# Arrasate

P R E S S

1999ko  
abenduak 30  
478. zenb.

SANTAMASAK: JAIK ARGAZKIETAN • URTEKARIA: HILABETEEN ERREPASOA  
AURKIBIDEA: URTEKO ALEAK • HOROSKOPOA: KARMELE BARANDIARAN





denda berria!

# Lasagabaster

G A Z T E M O D A



Zerkaostera 7 • ARRASATE • Tel : 943 79 86 14



# 31

ostirala

# 2

igandea

# 4

asteartea

■ KALEJIRA

Arrasateko Banda, 11:30.

■ BANDAREN MUSIKA

Arrasate Musikaleko Banda, Amaia antzokian, 13:00.

■ BINGO BEREZIA

Iturbide Egoitzan, 17:00.

■ ZINEA

*Ana y el Rey*, Alai zine-man (ordutegi berezia).

■ AGAKO AZOKA

AGAKOK Gabonetako IV. Bigarren Eskuko Azoka zabalduko du.

■ ZINEA

*Ana y el Rey*, Alai zine-man (ordutegi berezia).

■ BARREBUSERAKO GONBIDAPENAK

ETBren Barrebusa saioaren estreinaldira joan nahi baduzue, argi egon. Urtarrilaren 10ean banatuko dituzte gonbidapenak Arrasateko ikastetxeetan, eta hauekin sarrerak erosi ahal izango dituzue. Barrebusa saioa, Kike Amunarrizek zuzenduta, Amaia Antzokian izango da urtarrilaren 17an eta 18an. Txirri, Mirri eta Txirribiton eta Txan magoa besteak beste han izango dira.

■ ERREGE KABALGATA

Hiru Erregeen kabalgata urtarrilaren 5ean, 19:00etan abiatuko da Iturbide Egoitzatik. Kanean zehar ibili ondoren, Monterronera joango da. Han Jaiotza biziduna egongo da. Monterrongo Jaiotzaren antzezpena 20:00etan hasiko da. 11 urtetik gorakoa bazara, eta kabalgata honetan parte hartu nahi baduzu, zoaz San Viator Handira, urtarrilaren 4an, 19:00etan. Erregeei gutuna bidaltzeko, Seber Altuben, urtarrilaren 2, 3 eta 4an, 18:00-20:00.

# 1

larunbata

# 3

astelehena

# 5

asteazkena

■ ZINEA

*Ana y el Rey*, Alai zine-man (ordutegi berezia).

■ ZINEA

*Ana y el Rey*, Alai zine-man (ordutegi berezia).

■ ERREGEAK ITURBIDEN

Hiru Erregeak Iturbide Egoitzara joango dira eta opariak banatuko dituzte. Arratsaldeko 17:00etan.

■ ZABOR BILKETA

Abenduaren 31an zaborra 14:00etan jasokoda.

## Zuzendari berria

Arrasate Pressek zuzendari berria du: Marijo Deogracias kazetari antzuolarra.

Marijok 26 urte ditu eta Euskal Herriko Unibertsitatean egin zituen kazetari-tza ikasketak. Arkora etorri aurretik, hainbat hedabide-tan ibili zen. Azken aldi honetan kirol orrien ardura izan du.



■ TXIKILANDIA 2000

Txikilandia Gabonetako jolastokia urtarrilaren 2tik 5 eguerdira arte izango da zabalik. Bertako ekintzekin gozatu nahi baduzu, Musakolako Kiroldegian duzu gunea, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Gainera, aurreko zozketa handi bat egingo da, 4an, asteartez. Eta, urtero bezala, ezustetik ere izango da. Gogoratu 10:15etik hasita, hamar minutuero txatxibusa izango duzuela herriko hainbat gunetatik parkera eta bueltan.

**ARKO**  
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Marijo Deogracias. Kazetariak: Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria. Publizitatea: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroite, (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). Zuzentzaileak: Arantzazu Loidi. Administrazioa: Agurtzane Gainzarain, Maite Urriolabettia (Tel.: 943 71 23 90). Diseinua: Maddi Trubuelo. Aste-larrietako berriemakila: Monika Belastegi. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Kar-mele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. Banaketa arduraduna: Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gerutu Koop. E. (Zubilla-ga. Oñati).


ARRASATE PRESSEK ez du bere gain har-tzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzi-zen erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.


Azala: Maddi Trubuelo eta Marijo Deogracias.

Arrasateko Udaltzaren laguntza  
Gipuzkoako Foru Aldundien laguntza  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza





**Gizendu jaku txarrixa  
saltoka dabil herrixa  
aintxinako itturixa  
umore barri-barrixa**




Pinporta zen txerria eta Jon Bengoa eta Jesus Dominguez dira bere jabeak. La Estrella tabernan saldu zen 1.159 zenbakia. Guztira 8.500 bono banatu ziren: 8.000 saldu eta 500 euskal presoei banatutakoak.

**Lore**  
Lurrindegia  
Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50

**NAROKI**  
LIBURUDENDA  
Gure partetik...  
Zorionak eta  
urte berri on!

**NAROKI**  
BITXITEGIA  
Oparirik  
distiratsuenak

**P**ando  
ERROTULOAK  
Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabilioia)  
Tel. / Faxa: 943 79 79 70




**Zuri Garbiketak**  
Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



# Zorionak eta urte berri on!!!



Hogeigarren mendea  
agortuta gero,  
milako hirugarrenak  
denok gaitu ero.  
Euskal jendeandako  
zoriona espero,  
bakea denondako  
ta sakela bero.

Zortziko txikia  
Doinua: Olentzero

Egilea:  
Mikel Izquierdo (1. DBH)

Marraskilaria: Iban Galan (3. DBH)



Udala bidea, z/g  
Tel.: 943 79 77 74



Alfonso VIII. 1  
Tel.: 943 79 00 44



Elkano, 10  
Tel.: 943 79 04 49



Santa Teresa, 25 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 38 / 943 79 44 47  
Etxebarri auzoa, z/g • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 79 00



# Aldibi

*Gure hirugarren urteurrenean  
eskerrik asko Arrasate!*

*Zorionak eta  
urte berri on!*



Grupo  
**Nortekar**

**VOLVO**

Auto Suecia



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.



**GALLOPER**

Almovil, S.L.



**HYUNDAI**

Musakola autoak, S.L.



**MITSUBISHI  
MOTORS**

Aldikar autoak





# Santamasak



**1** Gatzagatik etorri ziren talogintzan erakustera.



**2** Eta badirudi batzuek aurretik bazekitela.



**3** Beste batzuek berriz badute zer ikasirik.




**4** Artisauen azokan eskuz egindako edozer aurki zitekeen.



**5** Ikazkintzan barik, burdingintzan ere ibili zen Olentzero.



**6** Astoak beti asto. Eta umeentzako zoramena.



**7** Beno, behiak atsegin dituztenak ere badira oraindik.



**8** Eta lanabesak? Horrek ere beharrezkoak, ezta?



# Santamasak



9

Urkamendiko ogia izan zen onena azokan.



11

Hau bai, majoa! Horrela behar du izan.  
Txiki-txikitatik! Gora Santamasak!



10

Udalbiltzaren oroigarri, haritza landatu zuten  
Kontzeziñoko biribilean.



12

Kaleko giroa berotzen trikitilariak ere ibili ziren.



13


Eta txarri dantzaren ostean...



14

...denak Uarkapera, bazkaltzera.





**ARRASATE**

**KIROLAK**

# Etorkezunari begira

2000. urte  
sasoitsua!




**Kirol bakoitzari erantzun bat**

**Kontzeziño, 8 • ARRASATE**

**Tel.: 943 79 46 12**



## Gelma eta Papiren auzia hasi zen



Pedro Mertzaneke kanpaldia egin zuen Garibaiko jolastokian.

Gelma enpresak Pedro Mertzaneke, Papi, kaleratu zuen, 1987tik finkoa izanarren. Zuzendaritza batzordeak bere lana era egokian ez betetzea leporatu zion. ESK sindikatuak, aldiz, Papi Gelmako hauteskunde sindikaletan zerrendaburu izan behar zelako kaleratu zutela esan zuen. Hori dela eta, hainbat mobilizazio antolatu ziren.

### MOBILIZAZIOAK

Hainbat kontzentrazio eta lanuzte antolatu ziren handik aurrera. Garibaiko jolastokian kanpin denda bat jarri zuen eta edurra egin zuen arren, han astebete luze egin zuen. Sinadura bilketa ere egin zuten, ESK, CCOO, LAB, ESTEEILAS, UGT sindikatuak eta Lankideak elkarrekin.

Papik bere enpresa ohiari



auzia ezarrita, maiatzaren 31n arrazoia eman zion Eibarko gizarte auzitegiko epaileak. Epaian, Gelma enpresak hartutako erabakia neurri gabekoa zela irakur zitekeen, eta 4 milioi pezetako kalte ordaina ordaintzera zigortu zuen enpresa, Gelma alegia.

Bestalde, Udalak Mertzaneke jarritako salaketa bertan behera geratu zen.

## Bilbora presoan alde

500 mondragoetar inguru joan ziren Bilbora, "Euskal Presoak Euskal Herrira" leloarekin antolatu zen kale agerraldian parte hartuz.

## Psikogeriatriko berria

Nagusientzat egoitza berria eraikitzen hasi zen Aita Menni, Zerrajeran. Uribe auzoko zentroak baino bi bider gaixo gehiago hartuko zituen.

## Uribetxeberria, errugabe

Josu Uribetxeberria goardia zibil baten autoan bonba-lapa jarri izanaz errugabe aitortu zuen Auzitegi Gorenak.

Josurekin batera Bellotxa komandoko hiru partaide epaitu zituzten, eta hauei 78 urteko kartzela zigorra ezarri zieten.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**


**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Iorre kalea. Irtzokia: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



## Brontzea Espainiako karate txapelketan



Erik Martin karateka mondragoetarra hirugarren gelditu zen Espainiako txapelketan. Saioa Karate Gimnasioko kirolari hau Euskal Herriko selekzioarekin abiatu zen El Ferrola. Taldekako txapelketan ere hirugarren egin zuten.

## Mondraren entrenatzaileekin bueltaka



Jabier Letona.

Jabier Letona gasteiztarrak hartu zuen preferente mailako futbol taldea bere ardurapean. 98-99 denboraldian Mondrak izandako emaitza txarrak zirela eta zen erabaki hau. "Mister" berria jokalaria izandakoa zen, eta entrenatzaile moduan Alaves eta



Juanina Garai.

Haro taldeak zuzendu zituen.

Kontuak kontu, denboraldi txarra egin zuen Mondrak, Jabier Letonak alde egin zuen liga bukatu baino lehen eta Juanina Garai, lehengo "mister" a, itzuli zen zuzendari lanetara.

## 29 milioi Garari

Urtarrilaren 30ean agertu zen hiru hilabete zehar egindako lanaren emaitza: Gara egunkaria, hain zuzen. Baltasar Garzon epaileak 1998ko uztailean Egin eta "Egin Irratia" itxi ondoren, "Baietz Plataforma" sortu zen, komunikabide horiek ordezkatzeko proiektua bultzatzeko. Arrasaten 29 milioi pezeta bildu ziren proiektu hau aurrera eramateko.

## Alokairuak, inoiz bano garestiago

Arrasateko etxebizitzaren alokairuen prezioak inoiz baino gorago zeuden urte hasieran. Prezio batzu 80.000 pezeta inguru zebiltzan.

*Kalitateak mugarik ez.*



## ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia  
Tel.: 943 77 11 30  
ARRASATE



## MCC lan eta lan otsailean



Mendiluze, Lakunza, Zelaia, Otegi eta Garmendia.

Hilabete honetan Kudeaketa Berritzaileko Gela izeneko ikastaroak estreinatu zituzten MUK, MCCk eta Euskadiko Kutxak, enpresetako exekutibo- boei gestioan erabiltzen diren metodoak ezagutarazteko.

Horrez gain, MUK bere lehen urtearen errepasoa egin

zuen. Ordezkariek pozik zeuden lortutako emaitzekin.

Promoauto ere otsailean jaio zen. MCCk eta Gamesak Hegoamerikan autogintzako hornitzaile izateko sortu zuten elkarte da, 12.000 milioi pezetako kapitalarekin merkatura atera zena.

### FAGOR

Fagor Elektronikak datozen hiru urteotan hobekuntzetan 2.000 milioi pezetako inbertsioa egitea erabaki zuten.

Fagor Industrialek, zilarrezko ezteiak bete zituen. 1972an *Fagor Domestico* utzi eta Oñatin hasi zen lanean.

## Olandixoko tunela

Udalak eta MCCk Takolo eta Garagartza lotuko dituen saihesbideari buruzko aurreproiektua finantzatzea erabaki zuten. Aurreproiektua Donostiara eramateko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean tunelaren alde indarra egiteko.

## Ibai-arteko zuzendaritza

Ibai-arte Denda eta Zerbitzu Elkarteak zuzendaritza batzordearen erdia berritu zuen. Sei ordezkari berri: Beatriz Oinetakoak, Lore lurrindegia, Arregi Enmarkazioak, Zabaleta lurrindegia, Zubiaga bitxidenda eta Troko.

## Zahar eta gazteak Santa-eskean



Santa Agatak jarraitzaile fin ugari izan zituen Mondragoen otsailaren 4an. Goizeko zortzietan kantariak elkartu, San Joan parrokian meza entzun eta lehenengo koplak abestu ondoren, bi taldetan banatu ziren Zigorrolara batzuk eta Bedoñara besteak.

San Blas egunean Aretxabaletako Apotzetxebar- rin ederto akordatu ziren santuarekin!!!

## Kirolari onenak

Aitor Lopez Rekarte eta Imanol Etxeberriari eman zion Radio Euskadik urtero euskal kirolariei ematen dizkien

sariak: Bonbari, "Taldearen hauspoa" izeneko saria eta Imanoli, "Jokalari seguruenaren garaikurra".



**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**AKELARRE**

- Erregetako erroskoa •
- Etxean egindako turroiak • Polboroiak •
- Mazapanak • Girlatxea • Trufak •

Zarugalde, 54 • Tel.: 943 77 00 71

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82



## Iruzurak Mondragoen

Bi motatako iruzurak izan genituen inguruotan, jende dezente aztoratu zutenak.

Bata, gas instalazioen azterketarekin lotua. Ustez gas enpresako langileek zirenak etxean sartu, bost minutuko "azterketatxo" egin eta alde egiten zuten, egindako lanarengatik 6.496 pezeta kobratuta.

Bestea, jabego anitzarekin lotuta etorri zen: Gas-

teizko enpresa batek hainbat jenderi jakinarazi zion telefonoz asteburu bateko egonaldiak tokatu zitzaie. Oparia lortzeko, derrigorrezkoa zen paper bat sinatzea. Baina paper hori kontratu bat zen. Sinatuz gero, jabego anitzeko etxebizitza batean sartzen zen jendea ezer jakin barik. Auzi honekin diru ugari galdu zuen batek baino gehiagok.

## STEE-EILAS irabazle eskoletan

Otsailaren 3a bozketa eguna izan zen EAeko ikastetxe publikoetan, ordezkari sindikalak aukeratzeko. Debagoiengan 271 botoe-

malek eman zuten botoa, orain lau urte baino 68 gehiagok.

Emaizta, berriz, honakoa izan zen:

### BOZKETAK HERRI ESKOLETAN

	Botoak	%	Ondorioak
STEE-EILAS	105	38	-0,7
ELA	63	23,2	+4,0
LAB	50	18,4	-1,3
CCOO	36	13,2	+1,2
UGT	17	6,2	-1,0

## Inauteriak bizi-bizi

Zuetako askok gogoan izango duzue oraindik ere otsailaren 14ko asteburua: inauteriak edo haratuzteak. Lau trapurekin batzuk, sekulako jantziekin beste batzuk, kontuak kon-

tu, mozzorro ugari ibili zen kalean nahiz ikastetxeetan, baita nagusien egoitzetan ere.

Despedidan, sardinak ere ez zuen kalerik egin, SUDC elkarteari esker.



Iturbide egoitzan ere ospatu zituzten inauteriak.

## Karate txapelketa

Senior mailako Euskal Herriko karate txapelketa jokatu zen Iturripen. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 104 karateka aritu ziren lehian. Tartean Erik Martin, Saioa karate eskolako; hirugarren geratu zen. Isidor Ugarte mondragoetarra, ostera, bigarren izan zen, Gas-teizko talde batekin.

## Trialsin txapelketa

Arrasaten jokatu zen otsailaren Gipuzkoako trialsin txapelketa. Udalan jarri zuten horretarako ibilbidea otsailaren 20an.

Infantilak, alebinak, juniorrak eta neskak aritu ziren lehian. Nestor Kortabarria gaztea izan zen inguruetako ordezkari bakarra.

# egizabal

## Oinetakoak eta poltsak

*Zorionak eta urte berri on!*

Olarte, 14 • ARRASATE • 943 79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28



## Hezibide aurrera



Hezibideren aurkezpena Almen ikastolan egin zuten.

Hezibide egitasmoak baiezko erantzuna jaso zuen bailarako ikastola guztietan. Bi aldaketa nagusi ekarri zituen egitasmo berri honek. Batetik "Lehen Hitz" izeneko kooperatiba sortzea, 6 urte arteko haurrentzako

hezuntza eskainiko duena. Bestetik, sei urtetik aurrerako haurrei hemendik bospasei urtera bi aukera ematea: Arrasate Ikastola (San Viator eta San Frantzisko Xabier) edo Almen.

## Emakumeen eguna



Martxoak Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ekarri ohi du. Hori dela eta, aste horretan zehar emakumea protagonista izan zuten makinatxo bat

ekitaldi antolatu zituzten herriko bost taldek "Demokrazia ere, emakumeontzat" leloarekin. Gizonarekiko bereizkeriak eta tratu txarrak salatu ziren.

## Fagorri saria

Fagor Automation enpresak Urteko Esportazio Enpresa onenaren saria irabazi zuen martxoan. Nazioartekotasuna bultzatzeko eta esportazioa bideratzeko egin duen lana saritu zion Merkataritza Ganberak. Izan ere, salmenten %65 esportazioak ditu Fagor Automotionek, denak goi mailako teknologian egindako produktuekin. Eremu horretan munduan dauden bost multinazionalekin lehian, 45 estatutan saltzen du. Bere langileen %30ek atzerrian egiten dute lan. Fagor Automotion izenarekin 1990ean hasi zen lanean. Gaur egun, Arrasaten 384 langile ari dira eta Usurbilgo lantegian, Berriola kooperatiban, berri, 56.

## DVren ordezkaritza

Debagoienarako ordezkaritza berria ireki zuen Diario Vasco egunkariak Uarkapeko etxe-etan. Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriaztako berriemaileak Otolora kaleko etxe berrian jarri ziren.

## CIMek 25 urte

25. urteurreneko ospakizuntan murgilduta ibili zen CIM Hizkuntza Eskola martxoan. Ingeleseko antzezlanaren eskaini zuten Amaia Antzokian eta baita bestelako makina bat ekitaldi ere. Besteak beste, ateak ireki zituzten, eskola bisitatu nahi izan zutenentzat.

## Korrika Arrasatetik gaez pasa zen



"1+1 Hamaika, Zu eta Ni Euskaraz" leloarekin martxoaren 24an iragan zen Korrika 11 Mondragoetik. Goizeko 03:50ean iritsi zen herrira, eta sekulako ongi etorri beroa jaso zuen arrasatearren partetik. Herriko 25 talde inguruk parte hartu zuten aurtengo Korrikan, baita herri eskola, ikastola eta institutuak ere. Korrika Kulturala ere izan genuen herrian, tartean Benito Lertxundiren kontzertua. Larraitz Trojaola izan zen Debagoieneko koordinatzailea.



KONTRATAK  
**IRVROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis  
Tel.: 943 77 09 92  
Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea  
Tel.: 943 78 21 82  
OÑATI



## Molotov koktelak Jimenoren etxeari



Martxoaren 27ko goizaldean ezezagun batzuek bost molotov koktel jaurti zituzten Ignacio Jimeno zinegotzi sozialistaren etxera. Baita Luis Zubiarenera ere, seguruenik bozeramaile sozialistaren etxera botatzen zituztelakoan.

Bost kokteletatik bat zinegotziaren sukaldera sartu zen eta beste bat, Luis Zubiaren egongelara. Kalte handiak eragin zituzten, bost milioi pezeta ingurukoak, aseguru etxearen esanetan. Ez zen, bestalde, zauriturik

izan, kaltetutako bi familiak ez baitzeuden etxean.

Martxoaren 28an PSE-EEko buruzagiak Arrasaten izan ziren Ignacio Jimenori elkartasuna adierazten eta gogor gaitzetsi zuten eraso. Astelehenean, berriz, Arrasateko EAK, EAJk, EBk, PSE-EEk eta PPK idatzi bat kaleratu zuten Jimenori eta Zubiari elkartasuna adierazi eta eraso gaitzesteko. HBk, berriz, ez zuen txarretsi eraso eta herri honetan bizi dugun gatazkaren barruan kokatu zuen.

## Arrasateko Euskara kalera

Arrasateko Euskara izeneko liburuak argia ikusi zuen martxoan. Eneritz Garro, Jesus Mari Garai, Estepan Plazaola eta Jose Luis Ormaetxea "Txipi" arrasatearrak eta Jerardo Elorza oñatiarrak izan ziren egileak. Mondragoeko topo-

nimia, Debagoieneko eta inguruko lexikoa, Araba aldeko aditzaren izen-formak eta aditza, deklinabidea, fonologia eta ahozko testuak sakonean aztertu zituzten liburu horretan. 1.000 ale kaleratu ziren, 1.000 pezetatan eskuragai.

## EA eta EAJ batera

Mondragoeko EAJ eta EA alderdi politikoek martxoan erabaki zuten batera joatea ekaineko hauteskundeetan. Jose Mari Loiti izendatu zuten koalizioaren buru, ekainaren 13an egin ziren udal hauteskundeetarako.

## 136 etxebizitza berri

IFAM lantegia A-20 eremura aldatu eta lantegiko lurrak etxebizitzak eta aparkalekuak egiteko erabiltzea erabaki zen. 136 etxebizitza berri aurrerikusi zituen proiektuak eta lurpeko aparkalekuak 200 izango zirela.

## Xakelari bikainak Arrasaten

Xakean emaitza bikainak lortu zituen Mondragoeko taldeak martxoan. Gasteizko irekiri garrantzitsuenean hirugarren izan zen San Andres Xake

Taldeko Txema Hernando. Brontzezko domina eskuratu zuen 5,5 punturekin. Josu Tornay, berriz, hamargarren izan zen.

## Gabon Zoriontsuak opa dizkizu GOIKOBALU ABESBATZAK



2000

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!





## MU eta Eroski elkarrekin

Eroski Koop. elkarteak eta Mondragon Unibertsitateak sinatutako hitzarmenaren arabera, Humanitateak-Enpresa karrerako ikasleek Eroskin egin ahal izango dituzte praktikak. Hitzarmen honen helburua, ikasleek lanpostuak lortzea da. Horretarako, Humanitate Fakultateko irakasleek beharrezkoa ikusten dute ikasketa orokorrak oraingo enpresen beharretara egokitzea eta aukera hau da ikasleei eskaini nahi zaiena.

### IKUSMEN ARTIFIZIALA

Honetaz gain, Mondragon Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea, elkarlanean hasi ziren ordenadoreen erabilera errazteko ikerlan bat

egiten. Ikusmen artifiziala lantzeari ekin zioten. Ikusmen honen bitartez, pertsona batek ordenadorea inolako bitartekaririk barik erabili ahal izango du.

### HEZI-REN AURKEZPENA

Eta ez dira hemen bukatzen Mondragon Unibertsitateak apirilean zehar egindakoak. Hezkuntza Zientzien Instituta ere apirilean aurkeztu zen. Hezkuntza proiektua sendotzeko eta bere baloreak berresteko jaio da HEZI. Hezkuntza Unibertsitarioa eta ez unibertsitarioa landuko ditu. Nahia, berriz, hezkuntzaren kalitatea hobetzea da, horretarako hezkuntza gure errealitatera egokituz.

## Aberri Egun berezia



Aurtengo Aberri Eguna inoiz baino esanguratsuagoa izan zen. Euskal Herriko hiru alderdi abertzaleek, Lizarra-Garazi akordioko sinatzaileek, dei bateratua egin baitzuten eguerdiko

12:00etarako. Arrasaten behintzat, aurreneko aldia zen horrelakorik gertatzen zena. Herriko plazaraino jende dezente hurbildu zen. Oroitzapenerako irudia, beraz.

## Musakolako kiroldegia berritzen

Musakolako kiroldegiak bere lehen berrikuntza lanak behar izan ditu. 22 urte bete ditu eta dagoeneko txiki geratu da Mondragoe bezalako herri batentzat eta herriarren behar berrientzat.

Martxoan aurkeztu zen aurreproiektua, baina apirilean hasi ziren lanak. Plangintzaren barne, errugbi zelaia, belodromoa eta atletismoko pista, futbol zelaia eta atsedean lekua berriak egitea aurreikusi zen. Hone-



taz gain, kiroldegiak eskaintzen dituen zerbitzu gehienetan beharrezko berrikun-

tzak egitea ere aurreikusi zen. 1.200 milioi pezetako inbertsioa egitea erabaki zen.

## Lizarra-Garazi eta lanuztea

Euskal Herriko beste herrietan bezala, Arrasaten ere erantzun zabala eman zuen Lizarra-Garazi akordioaren sinatzaileek deitutako lanuzteak.

Eguerdian hasi zen lanuztea eta ordubetez, herriko lan-tegi, eskola, denda eta taberna gehienetako langile gehienak kalera irtenda atxeki zitzaizkion Lizarrako aldarrikapenari. Bakea izan zen eskakizun nagusia deialdi horretan.

# RUMBA TABERNA

## JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Iturriotz kalea  
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00

# BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



## SUDCen zuzendaritza berria

Mondragoeko hainbat elkarte batzen dituen SUDC taldeak zuzendaritza berria aukeratu zuen. Zortzi pertsonak osatutako zuzendaritza izan zen, ordurarte baino bi gehiago. Otsailean izandako estuasunak garaitu ditu SUDC taldeak eta gainera, lan banaketa ziurtatu egin du beste bi pertsona gehiagorekin. Honakoxe hauek osatzen dute zuzendaritza batzorde berria: lehendakaria Joseba Andoni Alzelai, honen ordezkoa, Jesus Maria Egidazu, diruzaina, Juanjo Madinabeitia eta idazkaria Roberto Beltran de Gebara. Hauetaz gain, beste lau kidek osatzen dute taldea: Antxon Zumaldek, Jesus Mari Arzek, Rafael de la Cruzek eta Iñaki Aranak.

## Ertamerikaren aldeko kirola



Lirain gimnasioak "Ertamerikaren aldeko 1. Aerobitoia" antolatu zuen, Mitch urakanak kaltetutako jendeari laguntzeko. Nicaraguako Ocotal eta Sauce herrietan etxebizitzak eta ur putzuak eraikitzeko, hain zuzen ere.

Batutako dirua, Mugarik Gabeko Ingeniariak Gobernu Kanpoko Erakundeari emateko asmoa zuten. Leloa "Mugi Zaitetz Ertamerikaren Alde" izan zen. Elkartasuna eta kirola lagun ibili ziren hiru ordutan zehar.

## Arrasateko musika, mugak gainditzen



Bad f-Line musika talde arrasatearrak muga guztiak apurtu zituen. Euren lehen

CD luzea Madrilén grabatu ondoren, TVEn agertu ziren.

## Bakearen alde Arantzazura

Milaka pertsona igo ziren Oñatitik Arantzazura bakea eskatzeko. Arrasateetik bi autobuskada joan ziren Euskal Herriko Eliza Elkarateak egindako bakearen aldeko deialdira.

## Debarroko azpitxapeldunak

Egoitz Uribarren eta Beñat Dominguez haur mailako pilotariak azpitxapeldun geratu ziren Debarroko eskuz binakako txapelketan. 13-22 galdu zuten plazentziarren aurka.

## TITARE

Urte berri on!



Olarte kalea, 6 • Tel.: 943 77 10 16 • ARRASATE

**Aupa arrasatearrak!  
Aupa 2000. urtea!**



# Maiatza

## Portugaldarrak erroldan



Zaldispeko bi familia portugaldarrak Arrasateko erroldan onartu zituen udalak, ia urte t'erdi luzean ezezkoan tinko egon ondoren. Hiru eskaera egin zizkieten udalari, eta azkenean lortu zuten onarpena. Behin erroldan egonez gero, familiek hainbat esku-

bide irabazten zuten, hala nola, Foru Aldunditik diru laguntzak edo Emergentziazko Laguntzak jasotzea. SOS Arrazakeriakoak arduratuta zeuden, udalak erabaki hau hainbat ezezkoen ondoren hartu zuelako. Udalak legea bete zuela erantzun zuten.

## Jimenok talde sozialista utzi

Jose Ignacio Jimenok utzi egin zuen udalbatzako talde sozialista, Paco Garcia alderdikidearekin izandako liskarrak eraginda. Agintealdia bukatu bitartean, lanean segitu zuen.

Jimenok kaleratu zuen prentsa oharra zioenez, erabaki horrekin "ez zion kalterik sortu nahi PSE-EEri, alder-

di horren politikarekin bat zetorrelako". Dena den gogor kritikatu zuen Paco Garcia alderdikideak berarekin izandako jarrera. Dirudienez, azken honek hamarretik zero kalifikazioa eman zion Jimenok zinegotzi eta bozeramaile moduan egin zuen lanari.

## Nortasun Agiriak Arrasaten

Espainiako Barne Ministerioak bulego bat jarri zuen Arrasaten Debagoieneko nortasun agiriak egiteko eta berrizteko.

## Otala-Zelai, euritsua

XXI. aldiz jokatu zen maiatzaren 9an Otala-Zelai herri krosa. Garaipena mexikar batek lortu zuen, Joel Hernandezek. Bi segundugatik ezin izan zuen errekorra gainditu. Gazte mailan Arrasateko hiru korrikalari izan ziren nagusi: Fernando Nogales, Unai Elorza eta Oliver Fernandez. Jabier Mentxaka bigarren izan zen beteroetan.

## Namibiarrak nagusi

Arrasate-Oñati Herri Krosaren XVII. aldia, Luketz Sorzboi eta Elixabeth Mongudai namibiarrak irabazi zuten. 200 korrikalarik baino gehiagok hartu zuten parte. Jabier Mentxaka 6. izan zen, Mari Jose Gil, berriz, lehena emakume beteroetan.

## 35 orduko lanastearen eske

Maiatzaren 21ean egin zen 35 lanorduko astearen aldeko kale agerraldia. Oihartzun zabala izan zuen, ELA, LAB, ESK, ESTEE-EILAS, EHNE eta UGT sindikatuek modu bateratuan eta CCOO bere kasa deituta, 35 orduko lanuzteak.

## Gimnasia erritmikoko txapelketa

Iturripen jokatu zen maiatzaren 15ean Gipuzkoako gimnasia erritmikoko txapelketa. Euskal Herri osoko 200 bat gimnastak hartu zuten parte, alebin, infantil eta haur mailan. 28 ikastetxe aritu ziren eta soka, uztai, pilota eta esku librean lehiatu ziren.

Mondragoetik 13 lagunek parte hartu zuten. Infantiletan, Idurre Gartziak garaipena lortu zuen banakako txapelketan. Esan, baita, hirugarren tokian



beste arrasatear bat geratu zela: Maria Etxeberria. Biak ere sokarekin eta uztaiarekin aritu ziren.

**ARROGOI**  
**TABERNA**

*Ondo pasa Gabon zahar ganean!*

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

**BAKAILO ETXEA**

- Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailoan espezializatua
- Bakailao kazoletak prestatzen dira (bakailao gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 943 79 93 07



Milurteko berrian ere, zuen  
zerbitzura izango gaituzue!



Zorionak!

Garibai etorbidea, z/g

Tel.: 943 79 59 00/943 79 52 23

Faxa: 943 79 41 11



"la Caixa"



# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ..... ☎ 943 77 13 34

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40

## DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22 - 1 ..... ☎ 943 79 72 16

## FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ..... ☎ 943 77 03 96

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ..... ☎ 943 77 14 72

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ..... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... (Mobila) ☎ 989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetan), Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎ 943 79 20 18

## PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22

## TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22



## Jesus Guridi orkestra Arrasaten




Maiatzaren 8an Bilboko Jesus Guridi orkestrak kontzertu bat eman zuen San Frantzisko elizan. Goikobalu abesbatzaren hamargarren urteurrena ospatzeko izan zen orkestra herrian,

Gorka Sierraren zuzendaritzapean. Goikobalu abesbatza 1989ko udaberrian sortu zen, Jesus Mari Arzek eta Anton Zumaldek egindako lanari esker.

## Jabier Retegi, MUko errektorea

Mondragon Unibertsitateko Kontseilu Errektoreak Jabier Retegi izendatu zuen MUko errektore maiatzaren 12an izandako bileran. Ignacio Lakunza ordezkatu zuen Retegik.

MU 1997an sortu zen, gure inguruko hiru eskola bilduz: Eskola Politeknikoa Arrasaten, Irakasle Eskola Eskoriatzan eta ETEO Oñatin.



## Brutal Melody irabazle

Brutal Melody arrasateko taldeak Villa de Bilbao sari-keta irabazi zuen maiatzaren. Aner, Pako, Juanra, Txemi eta Juanek osatzen dute taldea eta 900 talderen artean eurak izan ziren onenak Bilbon. 300.000 pezetako sariaz gain, disko bat doan grabatzeko ere irabazi zuten.



## Pilar Mondragon, Espainiaratua

Pilar Mondragon iheslari arrasatearra maiatzaren 26an Fleuryko espetxetik Fresnesko eritexera eraman zuten. Gose greba egin zuen gartzela zigorra bete eta gero, Espainiaratuko zuten beldur. Mobilizazioak egin ziren herrian. Ekainaren 11n espainiaratu zuten Pilar. Egun

Soto del Real espetxean dago.



★ ★ ★ *Jai zoriontsuak izan!* ★ ★ ★

**AUTO KONPONKETAK**

**ZERBITZU OFIZIALA:**

Motorren konponketa eta salmenta

Araba etorbidea, Eskatu pabilioia • ARRASATE

**GABONETAN ONDO PASATZEKO...**

Iturriotz, 12 • ARRASATE



## Bi arrasatear, Broad Peak-era

Sei mendizale gipuzkoarrek osatutako espedizioa Pakistanera abiatu zen, Karakorum mendilerroa, Broad Peak zortzimilakoa igotzera. Bi taldekide mondragotarrak ziren, Jose Luis Martin eta Josu Pereda. Horiez gain, Mikel Arana aramaioarra, Xabier eta Pablo Rozas eta Josemiel Arazzadi lasartearrak abiatu ziren espedizioan. Broad Peak mendia Txina eta Pakistanen arteko mugan dago, eta 8.047 m. garaia da. Abuztuan iritsi ziren



gailurrera espedizioa bi kide. Arrasatearrek ezin izan zuten ametsa bete.

## Mondrak maila galdu zuen



Lehen errejionalera jeitsi zen Mondraren lehen taldea.

Ligako azken bi partidak irabazi arren, Mondra futbol taldeak ez zuen zorte handirik izan denboraldi honetan, eta Preferente mailatik Errejonaleko lehen mailara jaitsi zen. Lehen aldia zen hogei urtean Mondra maila horretan zegoena. Liga osoan, Mondra eki-

poak hamar norgehiagoka besterik ez zituen irabazi, 41 gol bere alde eta 53 aurka izan zituelarik guztira. Puntuek askoz ere argiago adierazten zuten taldearen egoera. Izan ere, 37 punturekin bukatu zuen denboraldia, liderrak baino 45 gutxiagorekin.

## San Joanak, bizkor joanak



Esatera bete egin da aurten ere, eta herriko jaiak konaturatu orduko, joanak ziren. Baina arrakasta sekulakoa izan zen. Jendea azken urtetan baino gusturago ibili

zen, eguraldi bikaina lagun. Erremintari Dantza apretiatua, danborrada, antzerkia, "dragoi" txuleten dastaketa... ekitaldi hauek eta askoz gehiago izan genituen.

## Ikerlanek 25 urte bete zituen

Mende laurdena bete zuen Ikerlanek, eta osasun onarekin bete ere. Eskola Politeknikoaren barnean sortu zen, eta ikerketaz eta proiektuen garapenez arduratzen zen sail txikia zen. Orduan bezala, 25 urteren buruan Ikerlanek enpresei zuzendutako teknologia lantzen eta aztertzen segitu nahi du, beti etorkizunari begira.



Carlos Redondo.

## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu jostak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62



*Elizondo*  
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99





# Txikilandia 2000

**Arrasaten** Musakolako kiroldegian • Urtarrilaren 2, 3, 4 eta 5ean


**Orduategia**

2, 3 eta 4an: Goizez: 11:00 - 14:00  
 Arratsaldez: 16:00 - 20:00  
 5ean: Goizez: 11:00 - 14:00

**ANTOLATZAILEA**

**LAGUNTZAILEAK**

**BABESLEA**



**ARRASATEKO UDALA**



# Etxeko lanak eta ardurak gizonezko eta emakumezkoen artean trukatzeko tailerrak

**GIZONEZKOENTZAT:**

- Sukaldaritza
- Garbitasuna
- Joskintza
- Plantxa
- Etxeko ekologia

**EMAKUMEZKOENTZAT:**

- Elektrizitatea
- Iturgintza
- Brikolajea
- Pintura
- Etxeko ekologia

**Noiz:** Urtarriletik apirilera  
**Ordutegia:** Arratsaldeko 18:00-tik 20:00-tara.  
**Matrikula:** 2.000 pta.  
**Izena emateko epea:** urtarrilak 20, osteguna.  
 Arrasateko udaleko emakume sailean  
 943 79 41 39 telefonoan.

Lanak zein ardurak ez du sexurik. Banatu itzazu!



435

- **Gaia:** Arrasate-Kemper Senidetasuna lantzen
- **Elkarrizketa:** Oskar J. Saiz Borondatezko lankidea
- **Ikuspegia:** Iker Barandiaran
- **Kultura elkarrizketa:** Nick Twinlley
- **Gure enpresak:** Zirt-Zart
- **Kirolak:** Mondrak entrenatzaile berria



436

- **Gaia:** Ikasle etxebizitzetan
- **Elkarrizketa:** Ander Landaluze, motorzalea
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Kultura elkarrizketa:** Alexis Valdes
- **Besteek esana:** Antton Olariaga
- **Kirol Elkarrizketa:** Araitx Etxabe



437

- **Gaia:** Eskubideak aldarrikatzen
- **Elkarrizketa:** Iñaki Sarasua, apaiza
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Kultura elkarrizketa:** Bad F-Line
- **Euren ikuspuntutik:** Mikel Etxagibel
- **Kirolak:** Txapeldun ugari



438

- **Gaia:** Santageda bezpera
- **Elkarrizketa:** Xabier Lazpiur, txirringularia
- **Ikuspegia:** Iker barandiaran
- **Kultura elkarrizketa:** Aitor Garcia
- **Euren ikuspuntutik:** Pilar Etxaniz
- **Kirolak:** "Challenge" trofeoak






439

- **Gaia:** 189 bonba
- **Elkarrizketa:** Joseba Larrinaga, atleta
- **Ikuspegia:** J.M. Velez de Mendizabal
- **Euren ikuspuntutik:** Bego Zubia
- **Kultura elkarrizketa:** N. Maiztegi
- **Kirol elkarrizketa:** Gorka Errekaldi



444

- **Gaia:** 11 aldiz Korrika
- **Elkarrizketa:** Jesusi Sasiain, Harrera familia
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Euren ikuspuntutik:** Arantza Alonso
- **Kultura:** Arrasateko euskara
- **Kirol elkarrizketa:** Maite Otxandiano.



440

- **Gaia:** Leihatze prest
- **Elkarrizketa:** Jabier Etxagibel, Gasteizko Guridi zinemak
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Euren ikuspuntutik:** Ramon Jauregi
- **Kultura elkarrizketa:** Lourdes Bedia
- **Kirol Gaia:** Txirrindularitza.



445

- **Gaia:** Karapaioxa Garizumako ohitura.
- **Elkarrizketa:** J.M. Velez de Mendizabal, idazlea
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Euren ikuspuntutik:** J.F. Diaz de Tuesta
- **Kultura:** Ikastaro garaia
- **Kirol elkarrizketa:** J. Maidagan



441

- **Gaia:** Hamar urte ezetz esaten
- **Elkarrizketa:** Benito Lertxundi, abeslaria
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Euren ikuspuntutik:** J.M. Insunza
- **Kanpoan bizi:** Jabier Ozaeta
- **Kirol gaia:** Trialsin txapelketa



446

- **Gaia:** Gerraostean dantzari
- **Orain eta hemen:** Alkategaiak
- **Ikuspegia:** Iker Barandiaran
- **Kirolak:** Eskubaloi taldea
- **Euren ikuspuntutik:** Juanjo de la Iglesia
- **Kultura:** Larraitz Trojaola



442

- **Gaia:** Gaztetxearen geroa?
- **Elkarrizketa:** Jabier Zubizarreta, abadea
- **Ikuspegia:** Iker Barandiaran
- **Euren ikuspuntutik:** Malen Errasti
- **Kultura:** Begoña Garaizabal
- **Kirol elkarrizketa:** Oskar Gavilan



447

- **Gaia:** Etorkizunerako kiroldegia
- **Elkarrizketa:** Edurne Erauskin, SFX Ikastolako Zuzendaria
- **Ikuspegia:** J.M. Velez de Mendizabal
- **Gure enpresak:** Bakailo Etxea
- **Euren ikuspegitik:** J.M. Elempuru
- **Kirolak:** Aerobitoia



443

- **Gaia:** Hezibideren erronkak milurtekoari begira
- **Elkarrizketa:** Manolo Quevedo, erretiratua
- **Ikuspegia:** J.M. Velez de Mendizabal
- **Zaldibarko txapelketa:** Zozketa
- **Euren ikuspuntutik:** Alberto Encinas
- **Kultura:** Taun-Taun taldea



448


- **Gaia:** "Hegohaxe" Sehaskaren haizea
- **Elkarrizketa:** Olaia Elortza, Euskal Herrian Euskaraz
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Gure enpresak:** Bastida akademia
- **Euren ikuspuntutik:** X. Mendiguren
- **Kultura:** Tribuaren Hitz Galduak





449

- **Gaia:** Medikuntza eta Natura bat direnean
- **Elkarrizketa:** Jonan Fernandez, Elkarriko koordinatzailea
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Euren ikuspuntutik:** Maite Aristegi
- **Kirol elkarrizketa:** B. Dominguez
- **Kultura elkarrizketa:** Mikel Markez




454

- **Gaia:** 25 urtez ikerkuntzan
- **Elkarrizketa:** Jose Antonio Azpiazu, antropologoa
- **Ikuspegia:** Iker Barandiaran
- **Kirolak:** Eskoriatza-Arrasate krosa
- **Euren ikuspuntutik:** Saro Manrique
- **Kanpoan Bizi:** Pedro M. Axpe



450

- **Gaia:** SUDC: 35 urtez tinko lanean
- **Elkarrizketa:** Jabier Barkero, munduko txapelduna
- **Ikuspegia:** Iker Barandiaran
- **Euren ikuspegitik:** Saro Manrique
- **Kirol elkarrizketa:** Jon del Rio
- **Kultura elkarrizketa:** Kepa Uribarren



455

- **Gaia:** Arrasate-Broad Peak
- **Elkarrizketa:** Pili Otxoa, haurren irakaslea
- **Ikuspegia:** J.M. Velez de Mendizabal
- **Kultura:** Takolo, Pirritx eta Porrotx
- **Euren ikuspuntutik:** Eugenio Iturriotz
- **Kirol elkarrizketa:** L. Errasti.



451

- **Gaia:** Herrigintza gailurrean: SJB Batzorde Eragilea
- **Elkarrizketa:** Dominika Madinabeitia, CIM-eko irakaslea
- **Ikuspegia:** J.M. Velez de Mendizabal
- **Kirol gaia:** Gimnasia erritmikoa
- **Euren ikuspuntutik:** M. Asun Barandiaran
- **Kultura:** Aritz Iñurritegi



456

- **Gaia:** Sanjuanak danbor hotsez datoz
- **Elkarrizketa:** Rafa Fernandez, danborjole ohia
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Kultura elkarrizketa:** Xeli Mendizabal
- **Euren ikuspuntutik:** Urtzi Mendizabal
- **Kirola:** Goitibeherak



452

- **Gaia:** AKP: Kirolean hezitzen
- **Elkarrizketa:** Brutal Melody, Villa de Bilbaon Sarituak
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Gure enpresak:** Meca
- **Euren ikuspuntutik:** Mikel Lezamiz
- **Kultura elkarrizketa:** Hibaí Garai



457

- **Gaia:** San Joan, etorri ahala, joan
- **Erreportaia:** San Juanak Argazkitan, egunegun
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Kirolak:** Karate Txapelketa
- **Euren ikuspuntutik:** Itxaro Artola
- **Kultura elkarrizketa:** Oxel Zabalo



453

- **Gaia:** Zuk bezala sentitzen dut
- **Elkarrizketa:** J.L. Martinez de Ubago, Hemodinamista
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Kirol elkarrizketa:** Cesar Diez
- **Euren ikuspuntutik:** Josu Benaito
- **Kultura gaia:** Komiki ez sexistak



458

- **Gaia:** Txironen itzulera
- Lizarra-Garaziko alderdiak, Gobernu Batzordean
- **Ikuspegia:** Iker Barandiaran
- **Kirolak:** Ane L. de Bergara Txapelduna
- **Euren ikuspuntutik:** J. Abalde
- **Kultura elkarrizketa:** Jesus Garmendia





459

- **Gaia:** Lezetxikiko altxorra
- **Elkarrizketa:** Jabier Retegi, MU-ko erretorea
- **Ikuspegia:** J.M. Velez de Mendizabal
- **Kirolak:** Mondraren batzarra
- **Euren ikuspuntutik:** I. Zabaleta
- **Kultura elkarrizketa:** N. Makazaga



464

- **Gaia:** ATB berriztuta
- **Elkarrizketa:** Utzune Urrizalki, Gazteak agintean
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Kultura elkarrizketa:** Arantza eta Pancho
- **Euren ikuspuntutik:** Joseba Intxausti.
- **Kirolak:** Nesken futbol taldea.



460

- **Gaia:** Mozart, Goikobaluren eskutik
- **Elkarrizketa:** Imanol Exposito, bidaiazalea
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Kultura elkarrizketa:** Silvia Tauschke
- **Euren ikuspuntutik:** A. Arribalaga
- **Kirolak:** Gil, Espainiako txapelduna



465

- **Gaia:** Maritxu Kajoi 99
- **Elkarrizketa:** Jesus Larrañaga, kooperatibista
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Kultura elkarrizketa:** Leire Aperribai
- **Euren ikuspuntutik:** Bittor Arriaran
- **Kirolak:** Eskubaloi taldea



461

- **Gaia:** Zaitegi, heriotzaren 20. urteurrenean
- **Elkarrizketa:** Jose Mari Larrañaga, KUI-ko zuzendaria
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Orain eta Hemen:** Batzorde berriak udalean
- **Euren ikuspuntutik:** Pedro Lasagabaster
- **Kirolak:** Arrasate Saria



466

- **Gaia:** Etxebizitzak: nahi bai, baina...
- **Elkarrizketa:** Anuska Lasa, aktorea
- **Ikuspegia:** Iker Barandiaran
- **Kultura elkarrizketa:** Enrike Dapena
- **Euren ikuspuntutik:** Jon Aldanondo
- **Kirolak:** Errugbi taldea




462

- **Gaia:** Jatorra, ederra. Jorge Fernandez, Mister Euskadi.
- **Asteko gaia:** Lore jokoak, 100 urte Aramaion
- **Ikuspegia:** Iker Barandiaran
- **Kultura elkarrizketa:** Arantza Ozaeta
- **Euren ikuspuntutik:** Eli Alzola
- **Kirolak:** Mondra taldea.




467

- **Gaia:** Zarzuela gogoan
- **Elkarrizketa:** Jorge Fernandez, Mister España
- **Ikuspegia:** J.M. Velez de Mendizabal
- **Kultura elkarrizketa:** R. Aranzabal
- **Euren ikuspuntutik:** Juan Jose Arrieta
- **Kirol elkarrizketa:** Ibai Bolinaga



463

- **Gaia:** Merezi ote?
- **Elkarrizketa:** Castor Uribe, AFAGI
- **Ikuspegia:** J.M. Velez de Mendizabal
- **Kultura:** Sexualitate bulegoa
- **Euren ikuspuntutik:** Jose Mari Sarasua
- **Kirolak:** Kenci-Arrasate



468

- **Gaia:** Agur... agur
- **Elkarrizketa:** J.A. Urdangarin, hirigintza teknikaria
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Kultura elkarrizketa:** Antonio Murillo
- **Euren ikuspuntutik:** Beñardo Kortabarria
- **Kirol gaia:** Saioako karatekak.





469

- **Gaia:** Santuak eta hildakoak. Azaroak 1, Domu Santu eguna
- **Elkarrizketa:** Joseba Ugalde, Ingurugiroko lehendakaria
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Kultura elkarrizketa:** Koldo Losada
- **Euren ikuspuntutik:** Lorea Aranburu
- **Kirol gaia:** Kenci-Arrasate neska



474

- **Gaia:** Baserria turismoaz uztartuz
- **Elkarrizketa:** Jabier Retegi, Eskola Politeknikoko zuzendaria
- **Ikuspegia:** Iker Barandiaran
- **Kultura gaia:** Akordeoi lehiaketak
- **Euren ikuspuntutik:** Juan Ramon Garai
- **Kirol gaia:** Iñurrategi anaiak



470

- **Gaia:** Mendea pasatxo: Aita Menni, bainu etxetik ospitale psikiatrikora.
- **Tranbia**
- **Elkarrizketa:** Iñaki Mendiguren, itzultzailea
- **Ikuspegia:** J.M. Velez de Mendizabal.
- **Kultura:** Euskararen Tunela
- **Euren ikuspuntutik:** Josu Azkarate
- **Kirol Gaia:** Zaldibarko Txapelketa



475

- **Gaia:** Santa Luzia, bistia konserbetako grazia
- **Elkarrizketa:** Milagros Salvador, misiolaria
- **Ikuspegia:** J.M. Velez de Mendizabal
- **Kultura elkarrizketa:** Ekon
- **Euren ikuspuntutik:** Xabier Letona
- **Kirol gaia:** Pilota jaialdia




471

- **Gaia:** Arantzazu nora zoaz?
- **Elkarrizketa:** Agustin Markaide, Eroskiko Zuzendaria
- **Ikuspegia:** Iker Barandiaran
- **Kultura elkarrizketa:** Kaitin Allende
- **Euren ikuspuntutik:** Iñaki Mendiguren
- **Kirol Gaia:** Trial txapelketa.



476

- **Gaia:** Santamasak
- **Elkarrizketa:** Bixente Elorza, Danok euskara elkarte
- **Orain eta hemen:** Garaia proiektua
- **Kultura elkarrizketa:** Olariaga
- **Euren ikuspuntutik:** Bittor Arriaran
- **Kirol gaia:** Pilota jaialdia




472

- **Gaia:** Asteburuetakoa denborapasa
- **Elkarrizketa:** Asier Aranguren, kazetaria
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Kultura elkarrizketa:** Jon Garai
- **Euren ikuspuntutik:** Jabier Abalde
- **Kirol gaia:** Zazpinako futbola




477

- **Gaia:** Olentzero Marrazki Lehiaketa
- **Elkarrizketa:** Olentzero
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Euren ikuspuntutik:** Txus Goikoetxea
- **Kirol gaia:** Irekiera arrakastatsua
- **Kultura elkarrizketa:** Koldo Amestoy.



473

- **Gaia:** Eguneroko nomadismoa
- **Elkarrizketa:** Joxemi Elizburu, txirindulari ohia
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Kultura elkarrizketa:** Valentin Arana
- **Euren ikuspuntutik:** Eugenio Iturriotz
- **Kirol gaia:** Uarkape pilotalekua.



478

- **Gaia:** Milurtekoaren azken.
- **Santamasak:** Jaiak Argazkitan.
- **Urtekaria:** Hilabeteen errepasoa.
- **Aurkibidea:** Urteko aleak.
- **Horoskopoa:** Karmele Barandiaran.



Eskerrik asko guztioi  
ametsak egia bihurtzen eta  
etorkizuna eraikitzen laguntzeagatik

Zorionak eta  
urte berri on!



**ARKO**

Arrasate Komunikabideak



# Jose Aranxabal

ETXEKO TRESNA ELEKTRIKOAK



*Aitzindarien zaporea  
geroaren ikusmena*

Iturriotz, 15 • Tel.: 943 79 15 16

SUKALDE ALTZARIAK



*zerbitzuan  
kalitate eta traturik  
onena*

Bañez Doktorea, 2 • Tel.: 943 79 18 92



# Udal hauteskundeak



Irabazi zutela jakin bezain laster, EHko zinegotzi hautatuek handikiro ospatu zuten garaipena San Frantziskoko iturrian. Inor baino ausartago, Luisito Pagoaga biluzik sartu zen uretara. Poza eta ikuskizuna, betiko harrapatu zituen Anartz Agirrek argazki honetan.

## Kanpaina irekia

Alderdi guztiek zuten asko jokoan ekainaren 13ko udal hauteskundetan. Izan ere, 1995ekoarekin alderatuz gero, egoera aldatu zegoen oso, Euskal Herrian bezala Mondragoen ere.

- ETak urtebete zeraman atentaturik egin barik.

- Lizarra-Garaziko ituna ere indarrean zegoen. Horren ondorio nagusia, udal hauteskondeei begira hauxe zen: EAK, EAJk eta EBK errespetatu egingo zituzten EHk ekai-

naren 13anlortutako emaitzak.

- EA eta EAJ batera aurkeztu ziren, lehenengo aldiz EAJ zatitu zenetik.

- PPK arrasatear bat jarri zuen zerrendan—Jose Ramon Prieto eraikitzailea—, aukuratua izateko moduan.

Horrengatik guztiagatik, lehia irekia eta bizia aurreikusten zen.

### KANPAINA LUZEA

Goiz hasi ziren alderdiak kanpaina egiten: maiatzaren hasie-

ran. Alderdi Sozialista izan zen lehena. EH eta EAJ-EA atzetik etorri ziren. EBk aurkezpen ekitaldi bakarra egin zuen, kanpaina ixtear zegoela. PPK, berriz, ez zuen ezer ere antolatu.

Edukiei dagokienez, denek banatu zuten programa, PPrene salbuespenarekin. Denak koloretan eta argazki askorekin, EBrena salbu.

Ekitaldirik deigarrienak, hala ere, sozialistek eta EHkoek eratu zituzten: lehenak kale-ira irten ziren arrosak banatzera;

bigarrenek pintxoak eta trikita uztartu zituzten azken mitinean.

### KANPAINA LASAIA

Hedabide handietan ez bezala, kanpaina oso lasaia izan zen Arrasaten. Ez zen erasorik izan, eta kritikak ere gizabidez egin ziren. Adibiderik argiena ATBK emititu zituen elkarrizketak eta mahai inguruak izan ziren. Alderdi abertzaleez gain, PSOEK ere parte hartu zuen.

Urte berri on!!

OKORETEGI

KAFETEGIA

*Bonet Ardotezia*

*Rioja ardoak • Duero ardoak • Priorat ardoak*

*50 marka desberdinetik gora  
Cognac, Armagnac,...*

Olarte 16 behea • Tel.: 943 79 58 23

**ORTO + LAGUN**

O R T O P E D I A

*Ondo pasau Gabon zahar egunean  
eta ondo hasi urtea!!*

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



# Udal hauteskundeak




Azken udalbatzarra. 1995-1999 agintealdiko udalbatzarrak bi alkate izan zituen. Garai latzak bizi izan zituen. Hona hemen azken osoko bilkuraren ostean, denak batera.

## Hiru arrasatear Batzar Nagusietan

Ekainaren 13an Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkideak hautatu ziren. Arrasatek hiru batzarkide lortu zituen: EHren izenean Xabier Zubizarreta izendatu zuten. EAJ-EAren izenean Itsaso Garai izendatu zuten batzarkide. PSE-EE alderdiaren izenean Rafi Romero gaztea izendatu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietarako ordezkari gisa.

## EHren garaipen ikusgarria



Espero ez zuen garaipena lortu zuen EHk ekainaren 13an: 1995ean baino 1.349 boto gehiago. Bigarren taldeari, EAJ-EAri, 909 botoren aldea ateraz zion.

PPk ere 394 boto irabazi zituen. Kanpainarik ez egin arren, bi zinegotzi irabazi

zituen. Antonio Palacios zinegotziaz gain, Jose Ramos Prieto mondragoetarra ateraz zen.

Kalteturik handiena, berriz, EAJ-EA izan zen: 859 boto galdu zituen, nahiz eta koalizioan joan. PSE-EEk ere 147 boto galdu zituen. EBK ere galdu egin zuen: 288 boto.

## Xabier Zubizarreta alkate



“Alkate, Xabier Zubizarreta da. Zorionak”. Hitz horiekin aldarrikatu zuen Jose Mari Loiti adin mahaiko lehendakariak EHko zerrendaburuaren garaipena uztailaren 3an, Arrasateko udalbatzar berria eratzeko egin


zen bilkuran. Alderdi aber tzaleek—EAJ-EA eta EH—zuriz eman zuten botoa. Gainerako alderdiei, beren zerrendaburuari. Txironek berreskuratu egin zuen horrela, 97ko abuztuan kendu zitzaion alkatetza.

**ARQUERO  
CONSTRULAN S.L.**

**ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK**  
 Basabe Industrialdea 4, EQ-11 • ARETXABALETA  
 Telfax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26







Zuretzat,  
bidalketa sistema  
fidagarri bat edukitzea  
ez da aukerarik garrantzitsuena.

## Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT  
GURE ESQUETAN JARTZEN DUZUNEAN,  
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ  
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN  
MERKATURATZEA NAHI DUZU.

BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK  
BETE BEHAR DITUZU,  
ALDI BEREAN HAU EK ERE  
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.

BIDALKETA,  
ZEURE NAHIAREN ARABERA  
EGITEA ESKATZEN DUZU,  
BESTERIK EZ.

HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI  
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,  
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK  
GARAIZ BETE DITZAZUN.

HORRELAKOXEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEA  
ATEZ ATE BANATZEN,  
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA  
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,  
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



**GUIPUZCOANA**

*Paketeen Garraio eta Banaketa*



*Beti garaiz.*

AENOR



Enpresa  
Erregistratua

ER-0626/297




ISO 9002





Plastikozko ontziak



Latak



brickak



# ...zure esku dago

## "Buelbaka - Buelbaka Birziklatuz"

**D**atozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Debagoienan zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

**E**ta horrela, lehengai eta energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zabortegeiak ere denbora luzegorako izango ditugu.

### Gutxitu hondakinak, berriz erabili eta birzikla itzazu

### Guztion mesedetan izango da





## Bretoiak Arrasaten



Bretainiako Kemper hiriko 80 bat lagun etorri ziren Arrasatera. Bisita hau bi herrien arteko harremanen haritik etorri zen. Bi urte dira elkarte hau uztartze horretan lanean ari dela. Kulturarekin lotura sendoa zuten pertsonak etorri ziren: historialari bat, irakasleak eta

argitaletxe bateko zuzendaria. Hiru egun igaro zituzten Arrasaten. Egun horietan hainbat ekitaldi egin ziren: ongietorria, jakina; hitzaldiak, dantzarien desfilea, eta Bretainiako eta Euskal Herriko dantza eta musika emanaldia, esanguratsuenen artean.

## Zorionak, Goikobalu!



Hamar urte bete zituen Goikobalu abesbatzak. SUDC elkartearen barruan eratu zen, eta harrezkero bazterrak alaitzen aritu izan da musikare-

kin. Lau sari eskuratu ditu talde honek. Hamargarren urteurrena primeran ospatu zuen Goikobaluk: Mozarten Requiema eskainiz.

## L. de Bergara, Espainiako txapeldun

Ane Lopez de Bergarak Espainiako hegats txapelketa irabazi zuen, ur gainera 1.500 eta 8.000 m.etan. 200 eta 400 m.etan, berriz, azpitxapeldun

geratu zen. Txarto ez, hala ere.

Emaitza ezin hobe hauek kontuan hartuta, hautatzaileak Europako txapelketara joateko aukeratu zuen Ane.

## Lezetxikiren aldeko apustua




Bigarren urtez jarraian, gazte talde bat eratu zen Lezetxikiko kobazuloan garbitze lanak egiteko. Kutxa Fundazioak eta Arrasateko Udalak babesten dituzte auzolandegiak, kultura ondarearen alde lan egiteko. Lezetxiki Euskal Herriko aztarnategirik garrantzitsuenetako bat da.

**EGUZKI GRUPO**  
inprimategia

Industriaidea 1-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792941

ARETXABALETA



MARKO-JARTZEAK

**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

# ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!





## Baserritarrak Elgearen aurka

Elgeako haize zentrala kokatu den lurren jabeek salatu egin zuten Euskal Energia Erakundeak (EEE) lur sailak desjabetzeko erabili zuen bidea. EEEK metro karratua 2,30 eta 5 pta artean erostea eskaini omen zien. Elgeako zentralaren inguruko auzia bero-bero zegoen bolada hartan, enpresa alde batetik eta ekologistak eta baserritarrak bestetik.



## Antoñako saihebidia egiten

Hilabetearekin batera ekin zitzaion Antoñako saihebidia egiteari.

Bide honek Santa Teresa eta Antoña ingurua lotuko ditu, institutuaren atzetik. Oraingo bidea, San Isidroren sartzan dena, desagertu egingo da, kiroldegia Mojategiraino zabalduko delako.

## Gobernu Batzordea eratu zen udararen hasieran

Opor aurretik eratuta gelditu zen Arrasateko Udalaren Gobernu Batzordea. Etahorrenkin batera Arrasateko Udalak hiru alkate orde izango zituela jakin genuen: Ino Galparsoro, Itsaso Garai eta Jose Mari Urizar, "Ametzu".

Batzordeei dagokienez, Euskal Herritarrokek hirigintza, pertsonala, herri finantzak, kultura eta kirola, gazteria, euskara eta emakumea sailak hartu zituen bere gain. Eusko Alkartasunak, zerbitzuak, ongi-



**Ino Galparsoro**  
EH / 1. alkateordea

zatea eta hezkuntza batzordeak hartu zituen. Eusko Alderdi Jeltzaleak lana eta auzoak




**Itsaso Garai**  
EAJ / 2. alkateordea

hartu zituen bere ardurapean. Ezker Batuak alderdiak ingurugiroa batzordea hartu zuen.



**J. M. Urizar "Ametzu"**  
EA / 3. alkateordea

Erakunde autonomoei dagokienez, EHk Aukea eta EAK, Iturbide egoitza hartu zituzten.



### Sagardotegia



## JAI ZALE TABERNA

- Ogitartekoak • Infusio naturalak eta...
  - Pintxoak
- MARTXA TOPATUKO DUZU!**

Olarte, 37 • Tel.: 943 79 67 92 • ARRASATE



## Jokin Zaitegiren heriotzetik 20 urte



Zaitegi jarrita, Erdian. Bere eskuinean Juan Mari anaia. Zutik, betaurrekoekin, Luis Arrieta Mondragoetarra.

Abuztuan bete ziren 20 urte Jokin Zaitegi arrasatearra hil zela. Euskal Herriak eman duen euskaltzalerik handiene-

takoa izan zen. Euskararen alde egin zuen lan bizitza osoan zehar, idazle eta itzultzaile lanetan, batik bat.


1976an Mondragoek Herriko Ohorezko Seme izendatu zuen. Jokin 1906ko uztailaren 26an jaio zen.

## Zerrajerako etxeak

Mondragoetar askok abuztua aprobetxatu zuten izena emateko Zerrajeran egingo diren babes ofizialeko etxeetan. Horietako askok Kutxaren bulegoetara joan ziren, egin beharreko urratsak egitera. Zerrajeraren lurretan 312 etxe egingo dira. 92 babes ofizialekoak izango dira eta 220 bestelakoak.

## Ama berriz ere

Agurtzane Gainzarain, Arko-ko kudeatzaileak, abuztuan izan zuen bere bigarren umea. Arane izena jarri zion, abuztuaren 24an jaio zen neskatolari.



**weru**  
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
ARRASATE



*Salterain*

PVC-zko ate eta  
leihoez gain:  
moksetak,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila...



## Omenaldia On Jose Mariari




1942an Barinagatik Arrasaterainoko bidea egin zuen On Jose Maria Arizmendiarrietak eta irailaren amaieran bere arreba Mariak egin zuen, anaiari eginda-

ko omenaldian egoteko. Goikobaluk ireki zuen ekitaldia eta Arrasateko parrokoak gogoratu egin zuen On Joxe Maria eta bedeinkatu anaia bien hilobiak.


## Hiru arrasatear, golfean txapeldun

Pako Zabala, Marce Gonzalez eta Mikel Etxabe arrasatearrek, hirurak afizionatuak, *El Mundo* egunkariak antolatu zuen Golf Txapelketa irabazi zuten. Eurekin batera Galdakaoko lagun bat aritu zen. Txapelketa enpresen artekoa zen

eta Legution jokatu zen. Santander, Errioxa, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko partehartzaileek jokatu zuten. Arrasateko taldea Cadizera abiatu zen ondoren, Espainiako txapelketa jokatzera. Abentura hantxe amaitu zen.



## Mister Euskadi eta España



Jorge Fernandez mondragoetarrak Mister Euskadi titulua bereganatu zuen. Gasteizen bizi da. Tau Baskoniarekin min hartu eta saskibaloia utzi

zuenetik, soinketa irakaslea zen. Urrian Mister España lehiaketan dotoreziaren titulua eskuratu zuen eta ondoren, Mister España izendatu zuten.

## Letonari ebakuntza

Irailaren 30ean ebakuntza egin zioten Enrike Letona preso mondragoetarrari. Hamahiru urtean izan du ezkerreko orkaila hondatuta. Azken bederatzita hilabeteetan makuluz ibili behar izan zuen. Ebakuntza egin eta hurrengo egunean Murtziako espetxera itzuli zuten.

## Etxabe eta Garitaonandia Euskal Herrira

Madrilgo gobernuak hainbat preso euskalherriratzeko erabakia hartu zuen. Ondorioz, Goio Etxabe preso arrasatearra Ocañako espetxetik Martutenera, eta Joseba Garitaonandia Madrildik Langraitzera ekarri zituzten.

# ESKIÑA taberna

Zorionak eta ondo hasi urtea!  
Olarte, 25 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 79 20 20



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •  
Erradapiak • Leihoak • Ateak •  
PVCko leihoak •  
Aluminiozko leihoak •  
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

### GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - beheka • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxes: 943 77 11 20



## Gudari Eguna, istilutsua



Hiru lagun zauritu zituzten ertzainek jaurtikitako gomazko pilotek.

Hiru zauritu, atxilotu bat eta hainbat auto gurutzaturik Arbolapetan. Horixe izan zen irailearen 27an, Gudari Egunean egin zen kale agerraldi

istilutsuaren emaitza. Portaloitik atera ziren eta Maalako Errabalaren bukaeran Ertzaintza zegoen bidea ixten. Ikamika batzuen ostean, ertzai-

nek gomazko pilotak bota zituzten. Batek Ino Galparroso alkate ordea jo zuen masailazurrean eta lurrera bota zuen. Beste batek Agustin Ibarluzea "Txispas" jo zuen belarriondoan eta ia hoge minutu egin zituen lurrean, anbulantzia iritsi bitartean. Beste bat Aitor Etxabek jaso zuen aurpegian. Geroago kaputxatu batzuek hainbat auto gurutzatu zituzten Arbolapeta parean.

Urriaren 4ko osoko bilkuran Ertzaintzak izandako jarre-ra salatzeke mozioa onartu zuen udalak. Arrasatearrek beren ideiak kalean adierazteko eskubidea eta zinegotziek horrelakoetan bitartekari lanak egiteko duten eskumena aitortzen zuen mozioak.

## Fagor, Polonian

Fagor Elektratresnak Wrozanet enpresa erosi zuen Polonian. Erosketa Europako Erdialdeko eta Ekialdeko merkatuetara zabaltzeko asmotan egin zuen Arrasateko kooperatibak. Wrozaneten sukaldeak egiten dira.

## Kenci-Arrasate

Senior mailako saskibaloitaldeak entrenatzaile berria izendatu zuen, Lander Errasti garai batean Arrasateko taldeko jokalaria izan zena. Bera Maltzaga-Urbina taldean aritu zen jokatzeko, Jorge Fernandez, Jon Basurko eta Danel Aias-tuirekin batera. Ordua arte, Basurkok eta Aias-tuik bete zuten entrenatzaile lana.



- Ordenagailuak
- Inprimagailuak
- Konponketak
- Eguneratzeak
- Osagarriak
- Internet

Okendo, 1 • Tel./Faxa: 943 77 16 68  
E-Mail: [microsinformatica@jet.es](mailto:microsinformatica@jet.es)

## DISCO-BAR



**Disco-Bar Gurelekuk  
JAI ZORIONTSUAK  
opa dizkizu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 29

Milurteko berrian  
**BETI SEGURU**  
jarraitzeko




**MIKEL LASA, S.A.**

*Zorionak eta urte berri on!*

Otalora Lizentziatua, 5 • MONDRAGOE  
Tel.: 943 71 24 54 • Faxa: 943 77 10 74  
e-maila: [mikellasa@segurcity.net](mailto:mikellasa@segurcity.net)



## Su eman zioten postetxeari



Suak kalte materialak eragin zituen.

Urriaren 14an goizeko 08:00ak aldera gazte batzuek Otolora kalean dagoen postetxeari eraso egin zioten. Zuloa egin zuten gutunak sailkatzeko biltegiko kristaletan eta bidoi bat gasolina sartu ondoren, su eman zioten. Momentu horretan hamalau bat langile ari ziren pos-

tetxan lanean. Inorez zen kalte-tetu izan, hala ere.

Urriaren 18ko Gobernu Batzordean Arrasateko udal gobernuak, EAJ, EH, EA eta Ezker Batua alderdien botoekin, lau puntuko testua adostu zuen, honelako gertaerak salatuz:

“Halako gertaerek ez dute

lagintzen giro egokia sortzen Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoa gainditzeko elkarrizketa eta negoziazio-prozesuak gauzatzen” zioen lehenengo puntuak.

Udal gobernuak hartutako erabakiarekin poztu egin zirela baieztatu ziguten PSOE eta PPko udal ordezkariak.

## Del Rio txapeldun



Jon del Rio Born Jay taldeko txirrindulariak, Lehendakari Saria irabazi zuen. Datorren denboraldian Banesto taldearekin arituko da.

## Komiki ez Sexisten lehiaketa

Hibai Zabaletak eta Inazio Telleriak irabazi zuten Udalak antolatutako Komiki ez Sexisten lehiaketa, “Geni@Kreatibo” lanarekin. Gazteen saria Unai Busturia arrasatearrak irabazi zuen euskarazkoen sailean. Gaztelaniazkoetan, berriz, Alex Ugalde bergararrak.

## “El Caserio” arrakastatsua



*El Caserio* zarzuela antzeztu zen Amaia antzokian urriaren 17an.

Arrakastatsua oso izan zuen emanaldia. Arrostitz dantza taldeak ere hartu zuen parte antzezpenean eta oso harrera ona izan zuen talde honen partehartzeak.

SUDC elkarteak antolatu zuen zarzuelaren emanaldia.

## Argazkirik onena

Antonio Murillok irabazi zuen “Gazteak eta 2000. urtea” argazki lehiaketa.





## San Juan de Diosek 100 urte



San Juan de Dios ospitalak mendea bete du 1999an. Irailaren 29an *100 Urteko Historia* liburua aurkeztu zen. Horrekin batera, Anto-

nio de Oteiza eskulturgile donostiarrak egindako eskultura inauguratu zuten. Aita Menni ere santu egin zuten Aita Santuak azaroan.

## Aita Demetrio Garmendia hil zen

90 urte zituela hil zen Aita Demetrio Garmendia. 1955ean berak ireki zuen berriro San Frantzisko eliza. Azken aldian Arantzazuko egutegirako idazten zuen batik bat. Arantzazun lurperatu zuten. Berrobin jaioa zen, Tolosaldean. Arantzazun euskalzaletu zen eta gerraostean ezagun egin zen predikatzaile moduan.



## Adostasuna Elgean



Eolicas de Euskadi enpresa adostasunera iritsi zen Elgeako Mendilerroan lurak dituzten lurjabeekin, lurak alokatzeko. Hitzarmena sinatu ezean, lurak desjabetzeko asmoa zuen Eusko Jaurlaritzak.

Lurjabeek eta Aretxabale-

ta, Oñati eta Eskoriatzako udal ordezkariak Gipuzkoako Jarraipen Batzordean parte hartzea erabaki zuten, lanak kontrolatzeko, Iberdrolako ordezkari eta Eolicas de Euskadi enpresako kudeatzailearekin batera.

## Mankomunitateko karguak

Xabier Zubizarreta izendatu zuten Debagoieneko Mankomunitateko lehendakariorde. Lehendakari, Victoriano

Gallastegi Bergarako alkatea. Arrasatek lau udal ordezkari ditu mankomunitateko zuzendaritzan.



**My** ile apaindegia

- Gizon eta emakumezkoentzako ile apaindegia
- Mozketa eta kolore joera berriak
- Txanda aurrez eskatu

Zorionak eta urte berri on!!

Alfonso X Jakintsua, 1 behea (Grupo San Juan) • Tel.: 943 79 79 65

## KYMETZ

Kazuelatxoak,  
ogitartekoak eta  
pintxoak

Maala, 15  
Tel.: 943 79 60 14  
ARRASATE

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiralean  
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99



## Pobreziaren aurkako taldea

Giza Bazterketaren Aurkako Taldea jende aurrean aurkeztu zen azaroan. Hainbat sindikatu, alderdi politiko eta giza mugimendu elkartu ziren. Helburua: Euskal Herriko gizarte Eskubideen Gutuna onar dezala eskatzea Eusko Jaurlaritzari. Gutun honetan soldata soziala da egiten den aldarrikapen nagusia. Hori eskatzeko azaroaren 20an iritsi zen Arrasatera "Bazterketaren aurka Giza Soldata" ize-neko ibilaldia.



### Ikasle presoan alde



Mondragon Eskola Politeknikoko Kontseilu Sozialaren baruan Presoen Aldeko Taldea sortu zen eta

azaroan, jende aurreko agerpena egin zuen "Eskolako Presoen Aldeko Taldea".

### Zaldibar martxan

Ohituraz Maritxu Kajoiren ajeekin hasten zen Zaldibar-ko txapelketa, azaroaren 13an hasi zen. Bonba Taldeik antolatu zuen eta aurten 44 taldek eman zuten izena.

### Auzo Lagun mugak zabaltzen

Auzo Lagun Kooperatibak beste enpresa bat erosi zuen Nafarroan: Jangarria, 160 langilerekin. Arrasatekoak sukalde zentrala izaten segituko du eta Nafarroakoa, bigarrena. Dagoeneko 1.300 lagun ari da Auzo Lagunen.


Inoiz ez dugu

jakingo zenbat

lagundu digun

aurrerapen

honek.



### Aita Benito Menni, santu

Aita Benito Menni santu egin zuen Aita Santuak azaroaren 21ean, Erroman. 1898ko ekainaren 1ean inauguratu zuten Santa Agedako Osasun Etxea Aita Benito Mennik, Añibarro sendagileak, Ospitalarioetako zenbait lekaimek, San Juan de Diosen zenbait anaiak eta 50 bat gaixok.



### Udalbitzari atxikimendua

Udalak azaroan eman zion bere atxikimendua Udalbitzari. Osoko bilkura berezia egin zen horretarako eta EAJ, EH eta EA alderdien aldeko botoekin onartu zen. PP eta PSOEko kideak ez ziren agertu.



**TAKOLO AUTOAK**

**OPEL** 



*Urte berri on  
guztiori!*

*Araba etorbidea, 3 • Eskatu Pabilioia  
Tel.: 943 79 05 86 • ARRASATE*

**OPEL** 



## Familia Heziketa zentroa kolokan

99-2000 ikasturtean ez du ikas-terterik eman Familila eta Gizarte Heziketarako Zentroak (FGHZ). Gizarte Segurantzak ez duela dirudi jaso FGHZ-etan lanean ari ziren 134 begiraleengandik (langile bakoitzeko 32.075 pta.ko 60 kuota eta 50.000 pta.ko isuna begi-

rak bakoitzeko). Kutxa Fundazioak Gipuzkoan dituen beste bost zentroetan ere arazo bera zuten. Arrasateko zentroan zehazki 12 lagun lanik barik gelditu ziren. Hasiera batean abenduaren 13an zen egitekoa epaiketa, baina martxoaren 13ra atzeratu zen.

## Arantxa Sasian espetxera

Azaroaren 15ean Baionako epaile batek hilabeteko espertxe zigorra jarri zion Arantxa Sasiani. Maiatzean zazpi urteko kartzelaldia amaitu zuen Parisen eta Frantziako Gobernuak Somme izeneko probintziara konfinatu zuen. Arrasateko Udalak idatzi bat ateratu zuen "Frantziako estatuak Arantxa Sasiani ezarritako Amiens herrian bizitzeko eginbidea" gaitzesten.



## Uarkape Udal Pilotalekua



Gobernu Batzordeak Uarkapen izena hautatu zuen udal pilotalekuarentzat. Alde batera geratu ziren "Mon-

dragones", "Arriaran II" edo bestelako aukerak. Udalak toponimia izan zuen kontua erabakia hartzerakoan.

## Tranbia Debarroa


Urriaren 29an, Deba bailarako alkate guztiak Aramaion bildu ziren, hango alkatearekin batera, Eusko Jaurlaritzako Alvaro Amman Garraio sailburuak deituta. Sailburuak proposamen harrigarria egin zien: Eskoriatzan hasi eta Debaraino, Debarroa zeharkatuko duen tranbia bat ezartzeari. Leintz-Gatzagak eta Mutrikuk autobus bidezko lotura izango lukete tranbiarekin.

Proposamenak harridura sortu zuen bi arrazoi nagusirengatik: batetik, tranbiak orain arte hiri ere-

muetan erabili direlako nagusiki; eta bestetik, lehengo burdinbidearen lurretan bidegorria egitea erabakita zegoelako. Sailburuak esan omen zuen proiektu biak egingo direla: batzuetan elkarren ondorian joango dira eta beste batzuetan aparte, zenbait kasutan tranbia herrietan sartuko da eta.

Debarroko alkateek ondo hartu zuten Garraio sailburuaren proposamena. Datorren urtean Garraio Sailak ikerketa lan bat egingo du, proiektua bideragarria den edo ez aztertzeko.

## Zorionak txapeldun!



Tomas Zubillagak Bizkaiko Perretxiko txapelketa irabazi zuen Galdakaon.

## Ander Elortondo



AEDko idazkari orokorra izendatu zuten Ander Elortondo gaztea. Ordua arte Udal Liburutegian ibili zen lanean.

## Garabia prest

Azaroaren hasieran iritsi zen udal garabia Arrasatera, bereziki oinezkoen pasabideetan, biribiletan eta garajeen edo antzekoen sarreretan utzitako ibilgailuak eramateko aginduarekin.

## "Debagoiena" bailarari

Euskaltzaindiak Deba Garaia barik, bailarari Debagoiena deitzea erabaki zuen; Deba Behea, Debarrena eta Deba bailara osoari, Debarroa.



## Bakearen aldeko kale bilkura arrakastatsua

ETAk abenduaren 5ean bertan behera laga zuen su etena. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak "Bakea behar dugu" leloarekin bost minutuko kontzentrazioarako deia egin zion euskal gizarteari abenduaren 10erako. Arrasaten ere erantzun zabala izan zuen deiak. Herritar ugari elkartu zen herriko plazan eta EA, EAJ, EH eta Ezker Batuko udal ordezkariak pankarta eutsi zuten eta "Bakea eraikitzen Euskal Herriak du hitza eta erabakia" zioen. Agerraldian PSOEko kideak ere izan ziren, bai eta Jarrai, AED, AUKEA, parrokia, sindikatuak, Iturbide egoitza, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Euskal Herriaren Euskaraz eta beste talde askotako kideak ere.



Jende askok egin zuen bat bakearen alde deitutako agerraldiarekin.

### Garaia proiektuak, 1.250 lanpostu



MCCk Garaia izeneko proiektua aurkeztu zuen abenduaren 13an Gipuzkoako Foru Aldundian. 1.250 lanpostu sortzea aurreikusten du eta Olandixoko maldan 400.000 m<sup>2</sup> erabiliko ditu

20 ikerketa gune egiteko. Ikertegien, unibertsitatearen eta enpresen premiak uztartzeko helburua dauka Garaiak. 8 urtetan garatuko da. Hasieran 5.000 milioi pta inbertituko dira.

### Carmina Burana, arrakastatsua



SUCD elkarteak antolatutako musika emanaldiak sekulako arrakasta izan zuen. Amaia

Antzokia leporaino bete zen Carmina Buranaren emanaldia ikusteko. Zorionak, SUCD!

**beatriz**

*oinetakoak  
eta poltsak*

Erdiko kale, 11  
Tel.: 943 79 14 33  
ARRASATE

**Hilbera  
kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**M**

**MEMESA**  
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25



## Uarkaperen inaugurazioa



Euskal presoan aldeko pankarta batekin geldiarazi egin zuten minutu pare batez pilota partida estelarra.

Abenduaren 21ean, Santamas bezperan, inauguratu zen Uarkape Udal Pilotalekua. Jende askok egon nahi izan zuen egun handi horretan pilotalekuan. Herriko 28 pilotariri omenaldia egin zieten Udalak eta Pilota Elkartek: eskuz, raketaz, zesta puntan eta sare-

an Mondragoeko herria ezagutzera eman zuten pilotariak. Oroigarri bana eman zioten Pilota Elkarteko pilotariak. Pilota jaialdia, berriz, Aspe enpresak antolatutako bi pilota partida izan ziren: Berrandok eta Auxkinek 18 eta 15 irabazi zieten Galarza V eta

Sukiari. Estelarrean 22 eta 11 nagusitu zitzaizkien Titin III eta Zezeaga, Goñi II eta Elkorori. Bigarren partida honetan "Presoak goste greban, prozesuan parte hartzeko eskubidea" zioen pankartarekin kantxara atera ziren herriko hainbat presoaren bost guraso.

### Baraualdia Uarkapen euskal presoan alde

Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolaturik, abenduaren 27an Gipuzkoatik etorritako 400 lagun inguruk astebeteko baraualdiari ekin zioten Uarkape Udal Pilotalekuan, euskal presoan alde egiteko. Zazpi egun horietan baraugileek ura baino ez dute edango.

Antolatzaileek esan zuten bezala, Arrasaten bildu zirenez gain, Bilbon 175 lagun bildu ziren; Gasteizen 75 eta Iruñean 100. Baraualdia urtarilaren 2an amaituko da, kale agerraldi batekin. Arrasaten dau-

den bitartean, baraugileak egunero bi kale agerraldi egiten ari dira: eguerdian eta arratsaldean. Horrez gain, hainbat hitzaldi eta mahai inguru prestatu dituzte. Abenduaren 29an HB, EA eta EAJko ordezkariak izan ziren, baraugileekin elkarriketa egiten. Eusko Legebiltzarrerara ere joan ziren, lekukotza ematera.

Amnistiaren Aldeko Batzordeek adierazi zuten bezala, aurrera egingo dute mobilizazioekin eta ez dute baztertzeko greba orokorra ere deitzea.

### Onena



Arrasateko Akordeoi Lehiaketa 99 jokatu zen abenduaren 3tik 7ra bitartean. Aurten errusiarra izan da onena, Sergei Voitenko. Bigarren Dominique Emorine frantsesa izan zen eta hirugarren, Vladimir Blagojevic jugoslaviarra.

Gipuzkoako lehiaketak Xabier Lizarragak, Oroitz Maizek eta Edurne Gartzia irabazi zituzten, maila ezberdinetan.

### J. Ortubai hil zen

Jabier Ortubai, kooperatibetako sortzaileetarikoa, hil zen abenduan. Ulgor sortu zuen berak, Usatorre, Larrañaga, Gorroño goitia eta Ormaetxearekin.

### M. Vitoria hil zen

Arrasateko alderdi sozialistako sortzaileetako bat, Markos Vitoria, abenduaren 6an hil zen Frantziako Tolosan, 93 urte zituela.

### Putz aldizkari berria

Sei arrasatearrek eta atxabaltar batek Putz kultura aldizkaria kaleratu zuten Durangoko azokarako. Bi hilabetez izateko asmoarekin sortu da.

### Ekon: disko berria

Durangoko azokan "Etnia 2000" disko berria aurkeztu zuen Ekon musika taldeak. Salmentak ondo baino hobeto joan zitzaizkion.

### Goiena abian

ARKOK Debagoieneko euskara elkarteek sortu nahi duten komunikazio zerbitzu bateratuaren berri eman zuen batzar orokor berezian. Goiena izenarekin Debagoieneko herri guztiak eta Aramaio batuko litzuke. Abenduaren 21ean zazpi euskara elkartetako ordezkariak Goiena egitasmoaren proiektua sinatu zuten.



# vitosec

KALITATEZKO ARROPA GARBITEGI BIZKORRA

**Eskerrik asko,**

lehenak izaten lagundu diguzuelako

- Zerbitzuan lehenak • Ekologian lehenak • Kalitatean lehenak •

**Eta eskerrik asko,**

azken urte honetan Arrasateko 3.000 familiak baino gehiagok  
22.000 jantzi baino gehiago utzi dituztelako gure eskuetan.

Milesker, zorionak eta urte berri on!

Otalora Lizenziatua, 22 • ARRASATE • Tel.: 943 77 17 82



*Oskar Vitoria  
Arrasate*

**Milurteko berria  
urrez jazteko...**



Iokin Zaitegi plaza, 9  
Tel.: 943 77 18 12  
Arrasate



# Berango

ALTZARIAK

**LOGOS**

ALTZARI INTEGRALAK



Bazkide

*Beste urte bat egin dugu elkarrekin.  
Milurteko berrian ere zerbitzu berriein  
etorriko gara zuekin elkarlanean segitzeko.*

*Bezero eta arrasatear guztioi  
2000. urte zoriontsua opa dizuegu.*

## ERAKUSKETA

Legarre Pabilioia, z/g • Gipuzkoa etorbidea • Tel.: 943 79 01 92



- Garageko atek
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko aginte tresnak eta hauen mota guztietako kopiak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak

Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxe: 943 79 08 17  
110 Postakutxa • ARRASATE

**JUBAR**<sup>®</sup>  
ATEAK, S.L.





Karmele Barandiaran,  
2000. urterako aurreikuspena

# Horoskopoa



## Aries

martxoak 21 - apirilak 20 • SUA

**Ekonomikoki urte garrantzitsua oro har. Dirua gobernatzeko edo irabazteko hainbat modu aurkituko dituzu.**

- Urtarrila oso ona izango da ekonomi eta sentimentalki. Sariren bat ere ager daiteke.
- Apirilean amodiorako aldi sutsua. Negozioetarako eta bidaiatzeko une aproposa.
- Uztailaren 15etik abuztuaren 7a arte, gozatzeko egun aproposak oro har.
- Urriaren 20tik azaroaren 10a arte ikasketetarako denboraldi ona. Albiste onak jasoko dituzte.



## Tauro

apirilak 21 - maiatzak 20 • LURRA

**Gizartean duen betebeharra aldatzeko eta dagokiona aurkitzeko, motore bezala funtzionatuko duelako.**

- Urtarrilaren 1etik 18ra ekonomia eta lan arloetan estruktura berriak sortzeko une egokia da.
- Urtarrilaren 24tik otsailaren 18ra, amodiozko harremanak finkatzeko momentu ona. Profesionalki helmugetara hurbiltzeko une aprobatxagarria.
- Ondo aprobetxatu otsailetik ekaina bitarteko hilabeteak.
- Maiatzean dena ondo aterako da
- Abuztua-iraila: negozioetarako egun borobilak.



## Gemini

maiatzak 21 - ekainak 20 • HAIZEA

**Espirituaren garapena. Bizitzari erreparoa emateko unea. Idealak aldatzen joango dira.**

- Otsailaren 18tik martxoaren 13ra, maitasun eta sentimenduen gorespenerako hilabete ona.
- Maiatzaren 14tik ekainaren 18ra une egokia arlo guztietan.
- Urte honen bukaera eta datorrenaren erdia oso onak izango dituzu.
- Iraila inbertsioetan, bikotearekin eta seme-alaba eta gurasoekin ondo moldatzeko hilabete aproposa.
- Abenduaren azkeneko hiru asteak maitasunerako unerik onenak izango dira.



## Cancer

ekainak 21 - uztailak 20 • URA

**Gauzak elkarlanean egitea gustuko izango dute. Lagunak kontu handiz aukeratuko dituzte.**

- Urtarrilaren 24tik otsailaren denboraldi ona giza harremanetarako.
- Martxoaren 15etik apirilaren 7ra, sariren bat jasoko duzue, autoestimari dagokionez, egun oso onak.
- Ekainaren 1etik abuztuaren 7ra, negozioetarako une egokia.
- Urria eta azaroa, bolada ona izango da orokorrean.
- Ekainaren 18tik uztailaren 12ra amodioan primeran.
- Irailaren 24tik urriaren 19ra abenturarako egunak dira.



## Leo

uztailak 21 - abuztuak 23 • SUA

**Patu berri bat izango duzu 2000. urtean. Bizitza profesionalean aldaketa handiren bat somatuko duzu.**

- Urtarrila egokia maitasunerako.
- Otsailaren 18tik martxoaren 13a arte ezuste baikorrak.
- Apirilaren azken hamabostaldia une ona da bidaiatzeko, ikasketetarako eta ideia ispiritualetarako.
- Uztailaren 13tik abuztuaren 22ra protagonismoa izango dute komunikazioan eta maitasunean.
- Abendua sormenerako, maitasunerako eta lagun berri onak egiteko hilabete ona izango da. Kitzikapen berriak izango dira bizitzan.



## Virgo

abuztuak 24 - irailak 23 • LURRA

**Aurten dena baikorra izango dute. Dena borobil aterako zaie. Espiritualki, zein materialki.**

- Urtarrilaren 24tik otsailaren 18ra ekonomia eta lan arloak berez joango dira. Une ona da espiritua aldeetik eta intelektualki hezitzeko.
- Abuztuaren 6tik 31ra tartean, ile apaindegira joan, arropak erosi, edo lagun asko afaltzera gonbidatuko dituzu.
- Irailaren lehen hiru asteak oso onak izango dira ekonomia-erentzat. Lanean eta gizarteko harremanetan aurrerapen handiak egingo dituzu.



## Libra

irailak 24 - urriak 23 • HAIZEA

**Askatu zure nortasuna. Aurten, emozio blokeoak sentituko dituzu eta litekeena da oztoporen bat ere aurkitzea.**

- Urtarrilaren erditik martxoaren erdira. Maitasun eta profesional arloak azkenean onera joango dira.
- Apirilean, giza harremanetan primeran ibiliko zara.
- Uztailean Gemitik izpi onenak jasoko dituzu. Bizipoz handiagoa nabarituko duzu, edo azkenean, gauaren ondoren eguna datorrela sentituko duzu.
- Iraila hilabete onenetakoa izango da. Dena borobil aterako zaizu. Aprobetxatu.
- Abenduaren azken hiru asteak maitasunerako ezin hobekak izango dira.



## Eskorpio

urriak 24 - azaroak 23 • URA

**Harreman ordenatuak. Aurten familiak eta bikoteak garrantzi handia izango dute.**

- Martxoan zehar sormena garatzeko erraztasuna. Hilabete ona oro har.
- Otsailaren erdi aldera une ona negozioetarako.
- Maiatzaren lehen hiru asteak garai ona izango dira kontratu berriak izenpetzeko.
- Uztailaren lehen erdia ikasketetarako eta bidaiatzeko ona izango duzu.
- Irailaren bukaeratik abenduaren hasiera arte, bi hilabete eta zertxobait gehiago iraungo duen unea publikoaren aurrean nola hitz egin jorratzeko.





## Sagitario

azaroak 24 - abenduak 23 • SUA

Lanean aldaketak. Epe luze-rako estrategia berriak eskatuko dizkizu lan arloak. Gorputza zaindu.

- Urtarrilaren 1etik 24ra garai ona maitasunerako, auto-estimarako eta emozioen arlorako.
- Apirilean sena eta sormena asko areagotuko zaizkizu.
- Uztailaren bigarren hamabostaldia eta abuztuko lehen astea ikasketetarako eta bidaietarako une ona.
- Iraila, ona lagunak egiteko.
- Urria-azaroa hilabete onak itxura zaintzeko. Dena zure alde izango duzu.
- Abenduan aprobetxatu negozio onak egiteko.



## Capricornio

abenduak 24-urtarrilak 20 • LURRA

Botere pertsonala. Nortasun eta finkatze garapenerako urte ona. Sormen handiko bolada izango du.

- Urtarrilaren 1etik otsailaren 18ra une ona sentimentu, ekonomia eta lan arloetan.
- Maiatza sasoi onena arlo guztietan.
- Abuztuaren 22tik irailaren 7ra negozioetan arrakastatsu izateko aldi aproposa. Urteko azken astean, gauza bera.
- Azaroko azken hamabostaldia eta abenduko lehen astean jantzi berriak erosteko eta maitasunerako une ezin hobea.



## Acuario

urtarrilak 21-otsailak 18 • HAIZEA

Oinarri berriak eraikitzeko une aproposa. Etxearen eta familiaren antolaketak izango dira aurtengo zereginak.

- Urtarrilaren 15etik martxo-ra negozioetarako, ikasteko, limurtu edo seduzitzeko unea.
- Uztaila hasieran suertea izango duzu. 2001aren erdira arte gertatuko da hori.
- Iraila osoa eta urriko lehen hamabostaldia bidaiatzeko eta ikasketetarako une ona izango duzu. Albiste onak jasoko dituzu eta sena areagotu egingo zaizu.
- Abenduaren 8tik 2001eko urtarrilaren azkena arte une zoriontsu eta emankorra izango duzu.



## Piscis

otsailak 19 - martxoak 20 • URA

Buruaren eragina: indarra. Ideiak, ikasketak eta bidaiak onak izango dira. Komunikatzeko erraztasuna.



- Otsaila, martxo eta apirila hilabete onak izango dira eguneroko gauza txikietarako.
- Ekainaren 15etik uztailaren 15era garaipen-espiritua lagun, ideia berriak sortu eta praktikan jartzeko, eta maitasun arloan ondo pasatzeko hilabetea.
- 2001eko urtarrilean emozioarekin zerikusia dutenak gori-gori izango dituzu.
- 2001eko martxoan negoziolari on bihurtuko zara eta harreman pertsonalak, gestio bereziak eramateko.

# GORKA

ILE APAINDEGIA

2000. urtean  
emaiozu haize  
berria zure  
buruari

*Zorionak eta  
urte berri on!!*



Ferrerias, 35 • Tel.: 943 77 13 78



batuzko eskaintza 1999ko azaroaren 25etik abenduaren 24ra

# Jostailuak



Gabonik gutziziatuenak



**EROSKI**

**2000**


Jostailuen erosketarako  
aholkularitza





**IKER** EK

MAITE  
DITUZUNAK  
ELKARTZEN  
DITU



# IKER

**SUKALDE ERAKUSKETA**  
Udala Plaza, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 00 43

**BAINU ERAKUSKETA**  
Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 99 42

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

**FAGOR**